



Emaús



INDIE VINTAGE DESFILEA / DESFILE INDIE VINTAGE

TXOSTENA 2016/06/03

**AZOKA
DESFILE
PHOTOCALL
MUSIKA
ESTILISMO
CUPCAKE**

**ARRATSALDE PASA
TARDE DE MODA**

**WALKING
INDIE** **EKAINAK 3 DE JUNIO
18:30 EMAÚS
EKOSHOP DONOSTIA**

Emaús **gaze**
KALEIDOSKOPIO

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
 EUROPAO KULTUR HIRIBURUA
 CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
 2016 ES EU

Gipuzkoa
 Euzko Legebiltzarra
 Legebiltzarburua
 Legebiltzarreko Kabinak

Euzko Herriko Unibertsitatea

Universidad de Deusto
 Deusto

tecnun
 Universidad de Navarra

MONDRAGON
 UNIBERTSITATEA

Tknika
 LABORE, INBENTSIONA, BIKERAGUTIA, ENPLAZA
 ENBERRIEN ERABILKETA ERABILKETA ERABILKETA

CEAN
 GIPUZKOA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. TESTUINGURUA	2
3. EGITARUA	4
4. EKITALDIAK	5
4.1 POP-UP	5
4.1.1 TAILERREN DIFUSIOA	5
4.1.2 BEHAR TEKNIKOAK ETA MATERIALA.....	6
4.2 JOSTEKO TAILERRAK.....	7
1. TAILERREN DIFUSIOA	7
2. BEHAR TEKNIKOAK ETA MATERIALA.....	7
3. TAILERREN EGITURA	7
4.3 MUNTO KATERIN PRESTAKETA	8
1. BEHAR TEKNIKOAK ETA MATERIALAK.....	8
2. ZER EGIN ZEN	8
4.4 INDIE DESFILEA (Walking Indie).....	9
1. DIFUSIOA	9
2. TAILERREN EGITURA	9
2.1. DESFILEA	9
2.2. KATERINA	10
2.3. MUSIKA	10
5. BALORAZIOA.....	11
5.1. TAILERRAK	11
5.2. POP-UP.....	11
5.3. DESFILEA.....	11
5.4. MUNTO	11
6. FITXA TEKNIKOA	12

1. SARRERA

Emaus, ingurumenaren arloan eta gizartean lan handia egiten duten eragilea delako jarri gara beraiekin harremanetan. Hori ikusirik eta hainbat bilera egin ondoren vintage-indie desfile bat egitera iritsi gara, nahiz eta hasiera batean aplikazio baten ideiarekin etorri ziren Emauseko kideak.

Desfile honen helburua jende gaztearengan bigarren eskuko arroparen erabilera bat bultzatzea izan da.

- Eguna→Ekainak 3
- Ordua→18:30
- Lekua→ Emauseko Amarako denda

2. TESTUINGURUA

Emausek “*gustuko ez dugun mundu bat aldatzea eta gure esku dauden baliabideekin, gizarte solidarioago, justuago eta berdinago bat lortzeko borroka egitea*” du helburu. Gizarte izaera bat dugun erakunde bat bezala definitzen dute beren burua, laikoa, irabazi asmorik gabekoa eta **EMAÚS INTERNATIONAL** mugimenduko parte dena.

1980. urtean hasi zer Erreterian gazteen landa-lana izeneko proiektu baten hildotik. Horrela, talde egonkor eta iraunkor bat sortu zen gaur egungo Emaús Gizarte Fundazioa Taldea denaren hasiera izanik.

Orduz geroztik taldeak martxan darrai Emaus taldeak Euskal Herriko lurralde ezberdinetan, munduan zehar diharduen moduan.

Beren helburuak aurrera eraman ahal izateko esparru ezberdinak garatzen dituzte:

- **Gizarteratzeko** eta **laneratzeko** programak.
- **Iraunkortasunerako sentsibilizazio eta hezkuntza** proiektuak eta garapenerako lankidetzak proiektuak.
- **Ekonomia solidarioko** enpresak.

Aldi berean balore ezberdinen adierazpena egiten dute:

Sormena eta Berrikuntza: Produktu, proiektu edo programa bihur daitezkeen ideiak asmatzean edo hobetzean gaitasun sendoa, irtenbide originaletara iritsiz, gizartean aldaketa bat sustatzen duten benetako alternatiba

Gertutasuna: Gertuko, atsegina, adeitsua, sentibera, errespetuzko harreman bat mantendu, pertsona eta bere inguruari entzun eta enpatizatzeko alde aurretiko jarrera ona inplikatzeko duena, giza beroaren ñabardura guztiak transmitituz, konfiantzazko harremanak sortzeko helburuarekin.

Moldagarritasuna: Sortzen diren behar eta aldaketen aurrean egokitzeko gaitasuna (ingurukoak, unekoak, ekonomikoak, egiturazkoak ...), aldaketa horien prozeduren, ekintzen, esku hartzeen aldaketan eta ekarpenean malgutasun batean islatzen da, baliabideak gehiengora optimizatuz.

Lankidetzak: Taldean lan egiteko gaitasuna, alde inplikatuak irtenbide bateratuak bilatzen ditugularik, ezagutzak elkar trukatzeko ditugu, komunikazio eta parte hartze kanalen sorrera errazten dugu, helburu komun batzuk lortzeko asmoarekin.

Inplikazioa: Konpromiso pertsonala entitatearekin, bere helburu, misioa, ikuspena eta baloreekin, lankideekin eta gizartearekin bat egitea inplikatzeko duela, egiten den lana norberarengana izango balitz bezala sentituz.

Elkartasuna: Lankidetzak / parte hartzea / ekintza sentimendua justizia sozialaren alde eta desberdintasun edo/eta pobrezia egoerak sufritzen dituztenen alde.

Iraunkortasuna: “Hemen eta orain” lan egiten dugu egungo eta bertako populazioaren beharrak babesteko, etorkizuneko belaunaldiak edo beste eskualdeetako herriak beraien beharrak ase ditzaten eta behartuta sentitu ez daitezten.

3. EGITARAUA

		APIRILA				
A	A	A	O	O	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24

		MAIATZA				
A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

			EKAINA			
A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

	<u>Klaseak: 15:00-17:00h</u>
	<u>Pop-up</u>
	<u>Munto - katerina prestatu</u>
	<u>Walking Indie desfilea</u>

4. EKITALDIAK

Amaierako ekitaldia egin aurretik beste bi ekitaldi ere egin ditugu, Pop-Up bat, Deusto eta EHU/UPV-n antolaturikoa eta Josteko Tailerrak, Emausen Amarako lokalean.

4.1 POP-UP

4.1.1 TAILERREN DIFUSIOA

Pop-up-a denbora labur batean leku zehatz batean zure denda edota “stand” a jartzeari deritzaio. Bertan, momentua aprobetxatuz, zure produktuaren eta egingo den amaierako ekitaldiaren difusioa egingo da, gerturatzeko direnei informazioa eskeiniz eta bide batez, norbaitek erakusgai dagoen arropa erosiko nahi balu, erosteko aukera aukera izango lukeelarik. Batez ere, ekitaldi amaierarako informazioa ematea da helburua.

Hori dela eta, difusioa Deuston eta EHU/UPV-n momentuan bertan egin zen, presentzialki modu ezberdinetara:

- « Alde batetik, panfletoak banatu genizkien bertaratu zirenei eta baita dekorazio modura, etiketa handi batzuk jarri genituen informazio emanaz.
- « Bestetik, momentuan bertan, ekitaldiko argazkiak igotzen aritu ginen sare sozialetan.



1: Pop-up ekitaldietako panfletoa



2: Pop-up ekitaldietan erabilitako etiketak

4.1.2 BEHAR TEKNIKOAK ETA MATERIALA

Ekitaldi hauentzako gauza ezberdinak behar izan genituen:

- « Arropa jartzeko mahaiak behar izan genituen, mahai hauek unibertsitateak utzi zizkigun.
- « Arropa zintzilikatzeko 2 esekileku behar izan genituen.
- « Lehen aipatutako panpletoak eta etiketak inprimatu behar izan genituen.
- « Itxura zaindu nahi genuenez, gure postua apaintzea pentsatu genuen, horretarako palet batzuk lortu genituen.
- « Arropa guztia Emaúsetik lortu genuen.
- « Tailerretan egindakoa ere erakutsi genuen.

ERRESERBA TXARTELA
ARROPA ERRESERBA - RESERVA DE PRENDA

IZENA/NOMBRE: _____

KODIGOA/CÓDIGO _____

PREZIOA/PRECIO: _____

Recoger ropa	Arropa jaso
Apartir de 07-06-2017	2016-06-07tik aurrera
Antes del 07-07-2016	2016-07-07a baino lehen

3: Pop-up ekitaldietan erabilitako erreserba txartela

4.2 JOSTEKO TAILERRAK

1. TAILERREN DIFUSIOA

Tailerrak Deustoko ikasleei zuzendurik zeuden hasiera batean. Izan ere, gure helburua Deustoko ikasgai baten barnean Emaús-ekin egindako elkarlan hau sartzea zen. Horretarako proba piloto bat egin nahi genuen Deustoko ikasleen artean batik batik, baina baita beste instituzioetako ikasleak ere kontuan hartuz. Hori dela eta, difusioa kartel bidez egin genuen, baita Deustoko ikasleei tailerrei buruzko informazioa bidaliaz.

2. BEHAR TEKNIKOAK ETA MATERIALA

Tailer hauek aurrera eraman ahal izateko, klaseak emango zituen irakasle baten beharra geneukan. Maddalen Amenabarro izan zen tailerrak emateaz arduratu zena.

Tailerrak emateko lekua Emaúseko Amarako lokala izan zen.

Eraldatua izateko arropa Emaúsek Irunen duen Ekocenterretik hartu genuen. Josteko materiala (orratzak, hariak, koloretako telak...) erositakoak izan zen.

3. TAILERREN EGITURA

Tailerrak sei klaseetan antolatu ziren, arropa zaharrari bizitza berri bat ematekotan.

Lehendabiziko egunean, josten ikasten hasi ginen, makinaren funtzionamendua nola zen... Egun horretan, kamixeta zaharrekin telazko poltsoak egiten hasi ginen, baina ez genituen amaitu.

Bigarren egunean, hasitako poltsoak amaitu genituen.

Hirugarren egunean, koloretazko tela zatiekin eta gomekin, ilerako gomak egin genituen.

Laugarren egunean, koloretazko tela zatiekin bururako turbante eta zintak egin genituen.

Azken egunean, gona zahar eta modaz pasaturikoak moztu genituen, ondoren gerrialdean goma bat jarri eta telazko gona motz eta egungoak bilakatu genituelarik.

4.3 MUNTO KATERIN PRESTAKETA

1. BEHAR TEKNIKOAK ETA MATERIALAK

Azken egunean egin genuen Walking Indie ekitaldirako Catering moduko zerbeit egitea proposatu ziguten Emausekoek.

Emausek dendaz aparte dituen talde eta lokalak ikusita, Muntoko jendearekin prestatzekotan geratu ginen.

Munto, Emausek Aieten duen lokala daa, non arazo ezberdinak dituen jendea bertaratzen den ekintza ezberdinak lantzeraz. Emausek komentatzen zigunez, jende gaztearekin harreman gutxi dute, hori dela eta atera zen ideia hau, horrela egoera ezberdinen elkar trukea eta ezagutza eman zedin.

2. ZER EGIN ZEN

Bi egunetan joan ginen beraien lokalera. Lehenengo egunean, ostegun arratsaldea, postreak egin genituen, hobeto esanda, janari gozoari ekin genion. Gominolak makiletan sartu genituen, bizkotxoak egin, madaletak egin eta apaindu, txokolatzeko palmerak eta marrubiak makitelan sartu.

Ostiral goizean bestelako janak egiten aritu ginen, tortila patatak, aurreko egunean amaitu gabe geratu ziren bizkotxoak apainketa eta sandwich ak.

Hau guztia egin ostean, Muntokoen laguntzarekin Amarako lokalera jeitsi genuen guztia.

4.4 INDIE DESFILEA (Walking Indie)

1. DIFUSIOA

Difusiorako pop-up ekitaldiak erabili ziren lehen azaldu bezala. Gainera, argazki ezberdinak atera genituen argazkilari baten laguntzaz sare sozialetan jartzeko bai guk bai emausek. Esan genezake difusioa biek egin genuela.



4: Azken ekitaldiaren difusiorako, sare sozialetan eginiko post bat

2. TAILERREN EGITURA

2.1. DESFILEA

Desfileak ekitaldiari hasiera eman zion. 18:30etan hasi eta ordu erdian zehar GAZEkide eta laguntzaile batzuek bigarren eskuko arropa erakusteko modelo gisa aritu ziren dendan zehar ipinitako pasarela batean zehar. Desfilea, zehaztu bezala irten zen eta ez zen azken orduko ezustekorik izan.



5: Azken ekitaldiko desfileko modelo guztiak

2.2. KATERINA

Katerina desfilearen ondoren hasi zen. GAZEKide bat, Olaia, izan zen Katerinaren arduradun. Ekitaldi guztian zehar, Muntoko parte hartzaileen laguntzaz, janaria ateratzen egon ginen. Ez zen arazorik egon, dena ederki atera zen eta gainera, egindako janari guztia amaitu zen.



6: katerinaren argazki bat

2.3. MUSIKA

Azkenik kontzertu bat izan genuen GAZEKide baten eskutik. Kontzerturako beharrezko materiala GAZEKide baten ekarri zuen eta ez genuen arazorik izan. Desfile ondorengo momentua girotu zuten musikariek eta katerina martxan zen bitartean musika pixka bat izan genuen.



7: Musikariak beraien abesti bat jotzen

5. BALORAZIOA

5.1. TAILERRAK

Gure helburua, unibertsitateko gazteak Emausera urbiltzea zen eta hauek lantzen dituzten gai batzuetan sakontzea. Kontzeptu ezberdinak landu nahi genituen gazte hauekin. Orokorrean, esan genezake helburuak bete genituela. 10 gazte bildu ginen tailerretan eta bizi berri bat eman genion zaharkitua zegoen arropari. Tailerretan ekonomia soziala, ekonomia zirkularra... bezalako gaiak landu genituen bideoak ikusiz saioa hasieran eta ondoren hauek komentatuz. Tailerretan arropa asko eraldatzea lortu genuen eta azken ekitaldiko desfilean erabili genituen.

Saioetako materiala “walking indie” ekitaldian jarri genuen salgai eta oso arrera ona izan zuten.

5.2. POP-UP

Pop-up-aren balorazioa orokorrean positiboa izan da, guk markaturiko helburu nagusia betetzea lortu baigenuen, Ekainak 3an ospaturiko Walking Indie ekitaldiari buruzko informazioa zabaltzea. Esan beharra dago, UPV/EHU-ko Carlos Santamaria Zentroan egindako Pop-up-ak Deuston egindakoak baino arrakasta gehiago izan zuela. Izan ere, UPV/EHUn denbora gehiago izan ginen informazioa banatzen eta gainera, azterketa garaia zenez gero, ikasle ugari zebiltzan liburutegian, pertsona transito handia egonaz.

Aspektu negatibo bezala, arropa salmenta ez zela oso handia izan, ez baikenuen lortu jende askok arropa enkargaturik uztea.

5.3. DESFILEA

Desfilearen balorazioa baita ere, generalki positiboa izan da. Alde batetik, desfilean parte hartu zuten GAZEKide eta laguntzaileak gustora aritu ziren desfilatzen eta sentazio onarekin geratu ziren. Bestalde, ez zen azkeneko ezusteko garrantzitsurik egon, gauzak antolatu moduan atera ziren eta horrek lasaitasuna eskeini zigun.

Hala ere, negatibo moduan ikusten dugu, desfilearen aurkezpena egin zen unean ez zutela GAZE aipatu. Ekitaldi osoan zehar zehazki. Horrek desfilea gauzatu zen zatian gutxienez, beraietzako lan egin izan bagenu bezalako sentazioa utzi zigun, beraiekin kolaborazio batean egiten aritu ginela sentitu ordez. Azken puntu hau bai zehaztuko genukeela negatibo moduan.

5.4. MUNTO

Balorazio positiboa egin beharrean gara. Beren balorazio ikusi ondoren ez dute hitz onik besterik esan, gurekin oso gustora aritu zirela lanean, nahi dugunean berriz ere bertaratzeko... Gure aldetik ere esperientzia benetan positiboa eta interesgarria izan da, jende ezberdinarekin egoteko eta ezagutzeko aukera izan baitugu.

6. FITXA TEKNIKOA

GAZE

Ekoshop amara

Mendeurren plaza, 3

20006, Donostia- San Sebastian (GIPUZKOA)

Email: gaztekinzale@gmail.com

<http://gaztekinzale.wordpress.com/>

Esker ona:

Emaus: Virginia Meza, Amaia, Begoña

Euskal Herriko Unibertsitatea – Universidad del País Vasco

Deusto: Idoia Irigaray eta Yajaira Kortabarria

Mila esker ekitaldietan parte hartu zenuten guztiei eta bertara gerturatu zinetenei

Donostian, 2016ko ekainaren 3an